# TXOSTENA 2024

## EZKERRALDEA ENKARTERRI GURUTZETAko ESI



**Argitaratzailea:** Komunikazio-Bulegoa

Osakidetza
EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# AURKIBIDEA

**SARRERA**

**GURE ERAKUNDEA**
- Antolaketa eta estaldura
- Erreferentziako zerbitzuak
- ERN Europako sareak
- CSUR erreferentziako zentroak, zerbitzuak eta unitateak
- Egun bat ESIan
- Urteko ekintzarik garrantzitsuenak

**ESTRATEGIA, GOBERNU ONA ETA GARDENTASUNA**
- Misioa, Ikuspegia, Balioak
- Erronka estrategikoak
- Arriskuak eta aukerak kudeatzea
- Ziurtagiriak eta egiaztapenak
- Interes-taldeak
- Emaitza ekonomikoak
  - Eraginkortasun-adierazleak kudeaketa-kontratuak
  - EEG ESIan artatutako pazienteen jatorria

**KONPROMISO PAZIENTEEKIN ETA ERABILTZAILEEKIN**
- Asistentzia-jarduera
- Azpiegiturak hobetzea
- Segurtasuna eta praktika klinikorako egokitasuna
  - Segurtasun klinikoa
  - BPSO (Best Practice Spotlight Organizations)
- Erabiltzaileen gogobetetzea eta esperientzia
  - Erabiltzailearen esperientzia
  - Kexak eta erreklamazioak
- Humanizazioa

**PERTSONEKIKO KONPROMISOA**
- Lanbide-kategoriak, sexua eta batez bezteko adina
- Etengabeko prestakuntza
- Espezializatua prestakuntza
- Euskara

**GIZARTE AREKIKO KONPROMISOA**
- Esku-hartze komunitarioko proiektuak
- Sortutako inpaktu soziala (Hedabideak)

**INGURUNEAREKIKO KONPROMISOA**
- Kontsumo
- Hondakinen kudeaketa

**BERRIKUNTZAREKIKO KONPROMISOA**
- 2024 Jarduerak
- Jarduera-adierazleak (Berrikuntzako inbutua)

# SARRERA



**2024. urtea bereziki garrantzitsua izan da Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIrako,** herritarrei ematen diegun arreta sanitarioaren kalitatea, segurtasuna eta bikaintasunarekin dugun konpromisoa berretsi duten mugarriak egon baitira.

Ildo horretatik, ekitaldi honen lorpenik nabarmena Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak Joint Commission International (JCI) erakundearen ziurtagiria lortu izana da. Aitorpen hori mundu osoko entzutetsuena eta zorrotzena da asistentzia-esparruan; hortaz, horri esker gure ospitalea tamaina eta ezaugarri horiek dituzten ospitaleetatik Estatuko lehen ospitale publiko orokorra izan da hizpide dugun ziurtagiria lortzen.

Aipatutako mugarria lortzeko ezinbestekoa izan da talde-lana, eta horretan parte hartu dute erakunde profesional guztiek, zeinek inplikazioa erakutsi baitute eta esfortzu izugarria egin baitute pazienteen segurtasuna eta haienganako arreta etengabe hobetzeko estrategiak garatu eta ezartzeko. Lorpen horrek, gure lantaldeen eguneroko lana aintzatetsi ez ezik, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIa eta Osakidetza osasun publikoaren abangoardian ere jartzen ditu; hala, Estatuan nahiz Europan kalitate eta segurtasunari dagokienez erreferente garela berretsi da.

Memoria honek barne hartzen ditu ekitaldian zehar izandako lorpenak, erronkak eta egindako proiektuak; horiek horrela, erakundearen parte diren lantalde guztien konpromisoaren, arduraldiaren eta bikaintasunaren erakusgarri da, bai eta herritarren aurrean kontuak emateko eta gardentasuna erakusteko tresna ere.

Funtsean, 2024ko Memoria Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIren orainaldia eta etorkizuna ezagutzeko gonbidapena da, non nabari baita erakundeak pertsonen ongizatearekin, segurtasunarekin eta kalitatearekin hartutako konpromisoa.

Mª Luz Marqués González
**Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari-gerentea**



# GURE ERAKUNDEA

- ANTOLAKETA ETA ESTALDURA
- ERREFERENTZIAKO ZERBITZUAK
- ERN EUROPAKO SAREAK
- CSUR ERREFERENTZIAKO ZENTROAK, ZERBITZUAK ETA UNITATEAK
- EGUN BAT ESIAN
- URTEKO EKINTZARIK GARRANTZITSUENAK

# ANTOLAKETA ETA ESTALDURA

**ESIak herritarrei ematen dien estaldura lehen mailako arretako 11 unitatetan banatzen da eta honako hauek osatzen dituzte: 27 osasun-zentro eta ospitale bat, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea.**

Erreferentziazko eremu geografikoak barne hartzen ditu lehen mailako arreta eta ospitaleko arreta ematen zaien Ezkerraldea-Enkarterriko 17 udalerritako ia **170.000 herritarrak**, bai eta Erandio-Astrabudua eta Txorierriko udalerriak ere, non ospitale-zerbitzu sanitarioak ematen baitira.

- **EZKERRALDEA-ENKARTERRI:** 161.770 BIZTANLE
- **ERANDIO-ASTRABUDUA:** 24.324 BIZTANLE
- **TXORIERRI:** 19.151 BIZTANLE

Hala ere, eragin-eremua handiagoa da, eta asistentzia sanitario konplexua behar duten pertsonak ere artatzen ditu eta, hor, **Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak erreferentzia-zentro gisa funtzionatzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren barnean zein kanpoan.**

# ERREFERENTZIAKO ZERBITZUAK

BIZKAIA | EUSKADI | Supra-CAPV

- Kirurgia plastikoa eta erredura handiak
- Bizkarrezur-muineko lesionatuen unitatea
- Oftalmologia
- Kardiologia Pediatrikoa
- Metabolopatiak
- Haurren bihotzeko kirurgia
- Jaioberrien Unitatea (Kardiopatiak)
- Haurren hemodinamika
- UZIU Pediatrikoa (ECMO - Kardiopatiak)
- Genero-identitatearen unitatea
- Bihotzeko kirurgia
- Neurokirugia
- Nefrologia Pediatrikoa
- Erreumatologia Pediatrikoa
- Urologia Pediatrikoa
- Onkologia Pediatrikoa
- Oftalmologia Pediatrikoa
- Kirurgia Pediatrikoa
- Toraxeko kirurgia

# ERREFERENTZIAKO TRATAMENDU ETA AZTERKETAK

BIZKAIA | EUSKADI | Supra-CAPV

- Parkinson - kirurgia
- Epilepsia - kirurgia
- Gibel transplantea
- Giltzurrun transplantea
- Haurren giltzurrun transplantea
- Emaile biziduneko giltzurrun-transplantea
- Sortzetiko gaixotasun metabolikoak
- Fibrosi Kistikoaren programa
- Keratoprotesia
- Mugimenduaren nahasmenduak
- Uretra-patologia konplexua
- Larruazaleko transplantea
- Oftalmologia-Oculoplastia
- Giza ugalketa
- Angiorradiologia Larrialdiak
- Interbentzionismo Fetala (Ekografikoa)
- Erradiokirurgia arteria eta beren malformazioak
- Oftalmologia Larrialdiak
- Histobateraezintasun ikerketa (Inmunologia)
- Hezurmuineko transplante autologoa zelula periferikoak
- Onkologia Oftalmologikoa
- Farmatzia Anbulatorioa: Hazkundeko Hormona
- Farmatzia Anbulatorioa: Hemofilia
- Medikuntza Nuklearra: erradioisotopoekin tratamenduagatiko ospitalizazioa

# ERREFERENTZIAKO ZENTROAK. CSUR ETA EUROPAKO SAREAK

**Europako Erreferentzia Sareak** (ERN ingelesezko siglen arabera: European Reference Networks) asistentzia ematen duten erreferentziako zentroen sare birtualak dira, mugaz gaindi antolatuak, gaixotasun konplexuetan edo prebalentzia txikikoetan esperientzia handia duten profesional klinikoek eta ikertzaileek ezagutzak, esperientziak eta baliabideak parteka ditzaten Europar Batasunean.

ERNek kudeaketa-egitura bat sortzen dute EBn, diagnostikorako eta tratamenduetarako sarbidea hobetzeko, bai eta kalitateko asistentzia sanitarioa emateko ere gaixotasun konplexuak edo prebalentzia txikikoak dituzten pazienteei.

ERN bateko kide izateko edo harekin lankidetzan aritzeko, aldez aurretik CSUR gisa akreditatuta egon behar da.

## LEEG ESIAK LAU AKREDITAZIO ERN GISA:

- **ERN-EYE** Gaixotasun oftalmologiko arraroak
- **ERN eUROGEN** Gaixotasun urogenital arraroak eta konplexuak
- **Endo-ERN** Helduen eta pediatrikoen gaixotasun endokrino arraroak
- **MetabERN** Nahasmendu metaboliko hereditario arraroak

Osasun Sistema Nazionaleko Erreferentziako Zentro, Zerbitzu eta Unitateak **(CSUR)** Espainiako Osasun eta Kontsumo Ministerioak akreditatutako entitateak dira.

Patologia jakin batzuetan erreferentzia nazionaleko entitateak dira, beren espezializazio eta kudeaketa-mailagatik. Behar duten pertsona guztiei ematen diete estaldura, estatuan bizi diren lekua edozein dela ere.

## EEG ESIak AMAIKA AKREDITAZIO DITU CSUR GISA:

- **CSUR** Begi-azalera konplexua berreraikitzea. Keratoprotesia
- **CSUR** Mugimendu-nahasmenduen kirurgia
- **CSUR** Sortzetiko gaixotasun metabolikoak
- **CSUR** Epilepsia gaixotasun errefraktarioa
- **CSUR** Helduen kirurgia berreraikitzaile uretral konplexua
- **CSUR** Helduen orbita-tumoreak
- **CSUR** Deskonpresio orbitarioa oftalmopatia tiroideoan
- **CSUR** Helduen eta pediatrikoen gaixotasun endokrino arraroak
- **CSUR** Giltzurruneko transplante pediatrikoa
- **CSUR** Gaixotasun autoimmuneak eta patologia hipotalamo-hipofisario konplexua
- **CSUR** Helduen Sortzetiko Kardiopatien Unitatea

# EGUN BAT ESIAN



**8.802**
EGUNEKO PAZIENTE KOPURUA ZERBITZU GUZTIAK KONTUAN HARTUTA



**136**
KONTSUMITUTAKO ENERGIA TERMIKO ETA ELEKTRIKO (Kwh)



**413**
KONTSUMITUTAKO UR $M^3$



**5.192**
SORTUTAKO HONDAKIN KOPURUA (KG)



**2.498**
ZERBITZUTAKO OTORDUAK



**5.824**
GARBITUTAKO ARROPA KOPURUA (kg)



**1.834.978**
GASTATUTAKO EUROAK EGUNERO



**7.166**
LANEAN ARI DEN PERTSONAK

# URTEKO EKINTZARIK GARRANTZITSUENAK

## ESTRATEGIA

- Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak nazioarteko aintzatespen entzutetsuena lortu du asistentzia-eremuan. + INFO
- Ezkerralde - Enkarterri - Gurutzetako ESIko Kirurgia Batzordea eratu da. + INFO
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak Medikuntza Nuklearreko Zerbitzu berritua eta abangoardiako teknologiaduna estreinatu du. + INFO
- Larrialdi eta Hondamendiei aurre egiteko Planaren aurkezpena. + INFO
- Infopaziente, pazienteei zuzendutako informazio-dokumentuei buruzko webgune berria. + INFO
- Ezkerralde - Enkarterri - Gurutzetako ESIak New Medical Economics 2024 saria jaso du "Prozesu asistentzialen hobekuntzan pazienteen eta senideen esperientzia txertatzeko estrategia" 2013tik gauzatzeagatik. + INFO
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak sarrera nagusia berritu du, instalazio berriak jarri baititu Onarpen nahiz PEAZ (Paziente eta Erabiltzaileen Arreta Zerbitzua) zerbitzuetan eta Informazio Unitatean; hala, hobetuko dira egunero ospitaletik igarotzen diren 11.000 paziente eta senide baino gehiagoren irisgarritasuna, arreta pertsonalizatua eta erosotasuna. + INFO
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Psikiatria Unitate berriari esker, Osakidetzak hobetuko du paziente psikiatrikoen eta haien senideen arreta. + INFO
- Zallako Erabakimen Handiko Zentro berriak ateak ireki ditu eta, hala, hobetuko da Osakidetzak Enkarterriko 30.000 herritarrei eskaintzen dien zerbitzua. Horretarako, 12,5 milioi-euroko inbertsioa egin da, eta 7.856 m²-ko azalera eraiki da. + INFO
- Kirurgiako zirkuitua hobetu da irisgarritasunari eta segurtasunari dagokienez (kirurgiako itxarote-zerrenda, % 30ean aurreikusitako programazioa, anestesia-aurreko zirkuitu berria, segurtasuna areagotzea, etab.)
- Egiturak diseinatu eta egokitzea ekipoak berritu eta gehitzeko (dentsitometroa, angiografoa, endoskopia-materialen esterilizazioa, suspertze-gela, gimnasioa, etab.) ospitalean eta osasun-zentroetan.
- Elkarreragingarritasun-proiektua gidatu eta zabaltzea, mendekotasunen balorazioetarako.

## Erantzukizun Sozial Korporatiboa. BERRIKUNTZA

- 2024ko Burdin Hesiko Mendi Lasterketan 30.549 euro bildu dira humanizazio asistentzialaren alde. + INFO
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean errealitate birtuala hasi dira erabiltzen haurrek ziztatzeari dioten beldurra murrizteko. + INFO
- Oftalmologia, Anestesia eta Bizkorketa zerbitzuetako eta Pediatriako ebakuntza-gelako langileek komiki bat egin dute Pediatriako prozesu kirurgikoari buruz; hala, ebakuntza kirurgikoaren aurretik haurrek izan ohi dituzten antsietatea eta beldurra murriztu nahi dituzte, bai eta prozesua ulertzen lagundu ere. + INFO

## OSASUNA

- Ospitalean, Estatuan lehen aldiz, elkarrekin eta tarte bakarrean, sortzetiko kardiopatia baten eta trakeako malformazio baten kirurgia konpontzailea egin zaio bi hilabeteko haur bati. + INFO
- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIak Zain Barneko Terapia Taldea akreditatu du. + INFO
- ESIak aurrera egin du asma akutua duten haurren arreta hobetzen; izan ere, "Asma Bat" proiektuaren bidez, asma-krisia duten haurrak hobeto maneiatzea helburu duen esku-hartze osoko prozesua ezarri nahi da, zeinaren bidez zaintzen jarraipena bermatuko baita eta koordinazioa nahiz komunikazioa hobetuko baitira. + INFO
- Osakidetzako Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak ehungarren inplantea egin du ECMOko garraioarekin, paziente kritikoen erreskatean. + INFO

# URTEKO EKINTZARIK GARRANTZITSUENAK

- Helduen sortzetiko kardiopatiak tratatzeko Estatuko erreferentzia-zentro (CSUR) izendatu dute Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea. + INFO
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak 5.000. giltzurruneko transplantea egin du EAEn 1979an programa hura abian jarri zenetik. + INFO
- Ospitalea Europako erreferentziazko zentro ofiziala da hemofiliaren tratamendurako. + INFO
- Osakidetzak Gurutzetan instalatu du mugimendu-nahasmenduak dakartzaten gaixotasunak tratatzeko EAEko intentsitate handiko lehen ultrasoinu-ekipoa. + INFO

## SEGURTASUNA

- Ospitalean nazioarteko segurtasun-helburuak ezarri eta zabaltzea
- Larrialdi eta Hondamendiei aurre egiteko Plana egin, ezarri eta simulatzea ospitalean.
- Suteen eta haur-lapurreten simulakroa ospitalizazio-solairuetan
- Estupefazienteen kontsumoaren gaineko aginte-koadroa eta liburu elektronikoa ospitalean
- Erizaintzako unitateetan medikamentu-izakinak berrantolatzea
- 23 Pyxis ekipo gehitzea bloke kirurgikoan eta Larrialdietan
- Anatomia patologikoko laginen trazadura eta zaintza gehitzea
- ESIan erabilitako produktu kimikoen segurtasun-fitxak kontsultatzeko datu-baseak

## PROFESIONALAK

- Akreditatu da Erradiofisikako Irakaskuntza Unitatea. + INFO
- Urologia Zerbitzuak 2.222 interbentzio egin ditu Da Vinci robot kirurgikoarekin. + INFO
- Erizaintza-ospe onena duten hamabost zentroen artean dago ospitalea. + INFO
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Neurologia Zerbitzuak Best in Class saria lortu du. + INFO
- BBBri buruzko prestakuntza masiboa eta BBB gurdiak homogeneizatzea.
- Historia klinikoaren dekalogoa eta historia klinikoa egoki erabiltzeko eskuliburua.
- Arlo klinikoen mapak egitea eta medikuntza- nahiz erizaintza-jarduna ebaluatzea.
- Parte hartzeko eta komunikaziorako eredua abian jartzea zeladoreen lantaldean.
- Aurreko urtean egindako arrisku psikosozialen ebaluazioa aztertzea.

## PAZIENTEEI ETA KOMUNITATEARI ARRETA EMATEA

- Altarako gomendioak jaso dituzten pazienteen heziketa-prozesua gehitzea historia klinikoan.
- Antibiotikoak Optimizatzeko eta Zentzuz Erabiltzeko Programa (PROA) komunitario aitzindaria gehitzea Lehen Mailako Arretan.
- Ingurumen-irizpideak gehitzea hornitzaileen ebaluazioan.





# ESTRATEGIA, **GOBERNU ONA** ETA GARDENTASUNA

- MISIOA, IKUSPEGIA, BALIOAK
- ERRONKA ESTRATEGIKOAK
- ARRISKUAK ETA AUKERAK KUDEATZEA
- ZIURTAGIRIAK ETA EGIAZTAPENAK
- INTERES-TALDEAK
- EMAITZA EKONOMIKOAK

# MISIOA, IKUSPEGIA, BALIOAK

## MISIOA

Pertsonen osasuna zaintzeko eta hobetzeko lan egiten dugu, pertsonen parte-hartzea kontuan hartzen dugu eta osasun-sistemarako eta gizarterako baliagarriak diren ezagutza eta berrikuntza sortzen dugu.

## IKUSPEGIA

Erakunde humanizatu, integratu, koordinatu eta arinagoa bistaratzen dugu, pazienteei arreta segurua eta baliozkoa eskaintzen diena, osasun-sisteman erreferente dena eta talentua erakartzeko eta talentuari eusteko gai dena.

## BALIOAK

### PROFESIONALTASUNA

Arduratsuak gara, ezagutza eta esperientzia ditugu, etengabe ikasten dugu eta inplikatzen gara gure lanaren emaitzak hobetze aldera.

### TALDEA

Helburu eta proiektu komunak ditugu, beste pertsona eta talde batzuekin koordinatzen gara, bai ESIaren barnean, bai ESItik kanpo, emaitzarik onenak eskuratzeko. Konturatzen gara taldeak balio hauen gainean eraikitzen direla: errespetua, komunikazioa, erantzukizun partekatua, eskuzabaltasuna eta konfiantza.

### ERANTZUKIZUNA

Konpromisoa hartua dugu gizartearekin pertsonen osasun-emaitzak hobetzeko eta sistema sanitario iraunkorra izateko. Zorroztasun, eraginkortasun eta gardentasunez egiten dugu lan. Gure jardueraren eraginak ebaluatzen ditugu, gure akatsetatik ikasten dugu eta arriskua kudeatzen dugu.

### ARINTASUNA

Azkar eta eraginkortasunez jokatzen dugu erabakiak hartzerakoan, eta aldaketak errazten ditugu. Erabakiak hartzeko testak eta prototipoak egiten laguntzen diguten metodologia arinak aplikatzen ditugu.

### GERTUTASUNA

Errespetuz eta gertutasunez erlazionatzen gara, betiere konfiantza sortuta, gure artean ez ezik, pazienteekin eta senideekin ere bai.

### IREKITASUNA ETA BERRIKUNTZA

Gure erakundeko pertsonen ezagutza erabiltzen dugu, beste eragile batzuen lankidetzarekin batera, irtenbide sortzaile eta baliotsuak proposatzeko. «Berria» dena aurrera egiteko eta hazteko aukera gisa interpretatzen dugu.

# ERRONKA ESTRATEGIKOAK



1 BALIOAN OINARRITUTAKO MEDIKUNTZA



2 HUMANIZAZIOA



3 SEGURTASUN KLINIKOA, EGOKITZAPENA ETA EBIDENTZIA



4 INTEGRAZIOA



5 LIDERGOA ETA TALDE-LANA



6 ESIko EZAGUTZAREN KUDEAKETA



7 ESI DIGITALIZATU ETA DIMENDUNA



8 ESPEZIALIZAZIO HANDIA



9 GOBERNANTZA-EREDUA

# ARRISKUAK ETA AUKERAK KUDEATZEA

**EEG ESIan arriskuen eta aukeren kudeaketak lehentasun estrategikoa du.** Izan ere, osasun-eremuko erronka eta aldaketei behar bezala aurre hartzeko, neurria hartzeko eta erantzuteko aukera ematen digu. 2018tik arriskuen kudeaketarako sistema bat erabiltzen dugu, zeinak metodologia bat ezartzen duen erakundearentzat garrantzia izan dezaketen arriskuen identifikazioa, analisia, ebaluazioa eta trataera egin ahal izateko.

Urtero, Zuzendaritza-taldeak arrisku estrategikoen ebaluazio sakona egiten du, eta horren kontrolerako ekintzak zehazteaz gain, hobekuntzarako aukerak ere identifikatzen ditu. Ekintza horien jarraipena egin ahal izateko, ekintzok urteko kudeaketa-planera gehitzen dira.

Prozesu horien bidez erakunde osoan zeharka zabaltzen dira identifikatutako arrisku estrategikoak. Sail eta unitate bakoitzak bere jardueran aplikagarriak diren arriskuak baloratu eta horien ekarpena era sistematikoan aztertzen ditu, aipatutako arriskuak murriztu edo ezabatzeko.

Ikuspuntu horri esker, arriskuen kudeaketa talde guztien eguneroko lanaren parte bilakatzen da. Horri esker, errazagoa da hobetu beharreko sailen identifikazio proaktiboa eta testuinguru bakoitzari egokitzen diren prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezartzea. Horiek horrela, erakundeak aurrera pausoak ematen ditu etengabeko hobekuntzan eta segurtasunean oinarritutako kultura baterako bidean. Kultura bat non profesional guztiak arriskuen kudeaketa eta murrizketaren parte aktibo diren, betiere helburu estrategikoen norabidea galdu gabe.

## HONA HEMEN AZKEN EKITALDIAN GAUZATUTAKO EKINTZETAKO BATZUK:

### JARDUERA ASISTENTZIALA

Segurtasun klinikorako protokoloak eguneratu dira gertakari kaltegarriak murriztu eta asistentzia-kalitatea hobetzeko. Gainera, kontingentzia-planak eguneratu dira arretaren jarraipena bermatzeko eskariaren areagotzeari edota ohiz kanpoko egoerei aurre egin ahal izateko. Erantzun denbora hobetzeko baliabideak berrantolatu dira.

### INFORMAZIO-SISTEMEN ETA DATUEN SEGURTASUNA

Zibersegurtasun-neurriak indartu dira. Horretarako, sistemak eguneratu eta prestakuntza eskaini zaie langileei datuen babesaren eta informazio-sistemen erabileraren inguruan. Barne-auditoretzak egin dira baita ere zaurgarritasunak identifikatu eta neurri zuzentzaileak ezartzeko. Historia klinikorako tresnetan hobekuntzak egiteaz gain, aldian-aldian auditoretzak ere egin dira. Kontingentzia-planak ezarri dira. HODEI kontingentzia-sistema hobetu da erorketa informatikoen aurrean arreta-estaldura hobea eman ahal izateko.

### PERTSONAK

Lan-ongizaterako programa bat definitu da arrisku psikosozialak ekidin eta antolakuntzaren giroa hobetzeko. Era berean, prestakuntza-planak eguneratu dira pertsonen gaitasunak egokitzeko erronka teknologiko eta asistentzial berrietara eta autobabesa hobetzeko.

### INSTALAZIOEN SEGURTASUNA

Simulakroak egin dira autobabeserako planen eraginkortasuna ebaluatzeko, eta baita bestelako arrisku egoeren aurreko emergentzia- eta jarduketa-planak probatzeko ere.

# ZIURTAGIRIAK ETA EGIAZTAPENAK

**2024an gure erakundeak mugarri oso garrantzitsu bat gainditu du** Joint Commission International (JCI) ziurtagiria lortu duelako. Nazioarteko errekonozimendu horrek arretaren bikaintasuna, pazientearen segurtasuna eta gure prozesuen etengabeko hobekuntza saritzen ditu.

Gainera, kalitatearekin, segurtasunarekin, ingurumenarekin eta berrikuntzarekin dugun konpromisoa berretsi dugu, honako ziurtagiri eta errekonozimendu hauek mantenduta:

- **SISTEMA DE GESTIÓN DE LA CALIDAD**, UNE-EN-ISO 9001:2015 araua.
- **SISTEMA DE GESTIÓN DE LA INNOVACIÓN**, UNE 166002:2021 araua.
- **SISTEMA DE GESTIÓN AMBIENTAL**, UNE-EN-ISO 14001:2015 araua.
- **REGISTRO COMUNITARIO DE GESTIÓN Y AUDITORÍA MEDIOAMBIENTALES** (EMAS. Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema).
- **CENTRO COMPROMETIDO CON LA EXCELENCIA EN EL CUIDADO** (BPSO).

**Zeharkako ziurtagiriekin batera, 2024an bi dira nabarmendu beharreko lorpenak:**

- **CSUR HELDUEN SORTZETIKO KARDIOPATIEN UNITATEA:** Sortzetiko kardiopatia duten helduen arretarako Zentro, Zerbitzu edo Erreferentziazko Unitate (CSUR) aitorpena, zeinak esparru asistentzial horretan nazio mailako erreferente gisa kokatzen gaituen.
- **INFUSIO EKIPO ETA SARBIDE BASKULAR ZIURTAGIRIA (EIAV):** EIAV ARAUAren arabera ziurtagiria lortu da: Gidalerro eta betekizunak esparru asistentzialean, irakaskuntza esparruan eta ikerketa esparruan ekintzak garatzeko, zeinak infusio terapietan eta sarbide baskularretan taldearen bikaintasuna eta espezializazioa saritzen dituen.

Lorpen horiek arretaren kalitatearekin, espezializazioarekin eta etengabeko hobekuntzarekin dugun konpromisoa indartzen dute. Horiek horrela, bermatu egiten dute gure pazienteek jasotzen duten arreta integral bikaina eta erreferentziazko erakunde gisa dugun posizioa.

# INTERES-TALDEAK

**Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan uste dugu gure interes-taldeekin dugun harremana funtsezkoa dela gure erakundearen garapen eta jasangarritasunerako. Haien parte-hartze zuzenari eta ahotsari esker gure estrategia definitzen, ezartzen eta ebaluatzen dugu.**

2024an zehar, gure interes-taldeen identifikazio eta lehenespen mekanismoak indartu ditugu. Analisi horrek aukera ematen digu gure esfortzuak bideratzeko helburuak betetzeko espektatiba eta ekarpen garrantzitsuagoak egiten dituzten kolektiboetara.

**Interes-taldeen parte-hartzea** elkarrizketa kanal ireki eta noranzko bikoen bidez integratzen da erabakiak hartzeko prozesuetan. Horren adibide dira, esaterako, talde fokalak, pazienteen esperientzia taldeak, inkestak, aldizkako bilerak eta plataforma digitalak. Ekimen horiek haien iradokizunak, ezinegonak eta hobekuntza proposamenak jasotzea ahalbidetzen digute, eta horri esker ekintza konkretuak egin eta gure zerbitzuen egokitzapen etengabea garatzen dugu.

## NET PROMOTER SCORE (NPS)
## GOMENDATUKO ZENIEKE BESTE ERAKUNDE BATZUEI EEG ESIarekin LANKIDETZAN ARITZEA?

### HORNITZAILEAK
EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI-ARI MATERIALAK ETA MEDIKAMENTUAK EDO ZERBITZU TEKNIKOAK EMATEN DIZKIETEN ERAKUNDEAK




*NPS:
Net Promoter Score

### GIZARTEA
EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI-AREKIN LAN EGITEN DUTEN EDO ELKARREKINTZAN DABILTZAN KANPO-ERAKUNDEAK
(administrazioak, elkarteak, teknologia-zentroak, elkargo profesionalak, fundazioak, egoitzak, etab.)




*NPS:
Net Promoter Score

# EMAITZA EKONOMIKOAK

| 2024 GASTUAK | € | % | %Aldea 2023arekiko |
| --- | --- | --- | --- |
| Funtzionamendu | 264.216.418 | 39,45 | 9,58 |
| Langileak | 405.550.625 | 60,55 | 3,99 |
| **GUZTIRA** | **669.767.043** | **100,00** | **6,13** |

| 2024 KOSTUAK | € | | %Aldea 2023arekiko |
| --- | --- | --- | --- |
| Ospitalizazioa | 339.421.263 | | 5,68 |
| Kontsultak | 75.249.739 | | 10,80 |
| Ospitalez kanpoko kontsultak Lehen | 18.851.595 | | 12,21 |
| Mailako Arreta | 55.355.337 | | 5,60 |
| Larrialdiak | 39.603.708 | | 6,63 |
| Kanpoko beste zerbitzu batzuk | 140.670.851 | | 4,82 |
| **GUZTIRA** | **669.152.493** | | 6,27 |

| 2024 BATERAKO KOSTUAK | € | | %Aldea 2023arekiko |
| --- | --- | --- | --- |
| Kostua Pisua GR* | 6.459 | | 2,69 |
| Ospitale barneko kontsulta | 223 | | 13,35 |
| Ospitalez kanpoko kontsulta | 102 | | 8,99 |
| Kontsulta familia medikuarekin | 43 | | 0,66 |
| Artatutako larrialdia Ingresurik | 266 | | 3,77 |
| GABEKO larrialdia | 226 | | 4,38 |

| | |
| --- | --- |
| 1.992 | **Tratatutako paziente bakoitzeko batez besteko kostua** |
| 370.188 | **EEG ESIan tratatutako pazienteak** |

## 2024 KOSTUAK



# EMAITZA EKONOMIKOAK

## ERAGINKOSTASUN-ADIERAZLEAK KUDEAKETA-KONTRATUAK




## EEG ESIan ARTATUTAKO PAZIENTEEN JATORRIA







# KONPROMISOA **PAZIENTEEKIN** ETA ERABILTZAILEEKIN

- ASISTENTZIA-JARDUERA
- AZPIEGITURAK HOBETZEA
- SEGURTASUNA ETA PRAKTIKA KLINIKORAKO EGOKITASUNA
- ERABILTZAILEEN GOGOBETETZEA ETA ESPERIENTZIA
- HUMANIZAZIOA

# ASISTENTZIA-JARDUERA

| 2023 | | 2024 |
|---|---|---|
| | **OSPITALIZAZIO-JARDUERA** | |
| 811 | Oheak | 832 |
| 224.802 | Egonaldiak | 223.872 |
| 4,76 | Batez Besteko Egonaldia | 4,50 |
| 5,73 | Batez besteko egonaldia EOK gabe | 5,5 |
| 47.222 | Altak | 49.297 |
| 52,53 | Premiazko ingresuen % | 52,13 |
| 75,9 | Okupazio-indizea | 73,4 |
| 1,0762 | Pisua | 1,0634 |
| | **LARRIALDI JARDUERA** | |
| 195.598 | Atenditutakoak | 200.109 |
| 23.805 | Ingresatutakoak | 25.674 |
| 12,2 | Ospitaleratutako larrialdien % | 12,3 |
| | **KANPO KONSULT. JARDUERA** | |
| | **OSPITALEAN** | |
| 89.713 | Lehenak | 92.934 |
| 500.811 | Ondorengoak | 522.629 |
| 5,58% | Ondorengoak/Lehenak | 6% |
| | **OSPITALE KANPO** | |
| 86.568 | BERTARATU GABEKO KONTSULTAK | 98,388 |
| 88.375 | Lehenak | 89,323 |
| 168.178 | Ondorengoak | 176.208 |
| 1,9 | Ondorengoak/Lehenak | 2 |
| **847.077** | **GUZTIRAKO KONTSULTAK** | **881.094** |
| | **JARDUERA KIRURGIKOA** | |
| 33 | Kirofanoak | 33 |
| 39.426 | Interbentzioak | 41.453 |
| 22.891 | Interbentzio Programatutakoak | 24.025 |
| 3.871 | Interbentzio Presakoak | 3.428 |
| 12.664 | Minor kirurgiko prozedurak | 14.000 |
| 11.110 | Kirurgia Handi Ambulatorioa | 12.284 |

| 2023 | | 2024 |
|---|---|---|
| | **JARDUERA OBSTETRIKOA** | |
| 3.743 | Erdizeak | 3.680 |
| 576 | Zesareak | 490 |
| | **OSPITALIZAT. ALTERNATIBAK** | |
| 10.543 | Eguneko hosp. kirurgikoa (pazienteak) | 11.323 |
| 49.378 | Hospital Día (saioak) | 55.351 |
| 2.084 | Hospital a Domicilio (altak) | 2.125 |
| | **TRANSPLATEAK** | |
| 138 | Giltzurruna | 160 |
| 19 | Emaile bizi giltzurrun | 18 |
| 2 | Giltzurrun gurutzatua (bizia barne) | 3 |
| 80 | Kornea | 92 |
| 74 | Gibela | 73 |
| 79 | Jatorrizko hematopoyetikoak | 78 |
| 118 | Ehun osteotendinosoa | 134 |
| 45 | Mintz amniotikoa | 46 |
| | **LEHEN MAILAKO ARRETA** | |
| | **KONTSULTA-JARDUERA** | |
| 776.089 | Medikuntza Orokorra | 801.455 |
| 110.370 | Pediatria | 108.337 |
| 323.031 | Erizaintza-lanak konsultak | 321.060 |
| 362.942 | Erizaintza- lanak prozeduretan | 355.263 |
| 34.858 | Emaginak | 38.693 |
| 14.466 | Estomatologia | 13.518 |
| 54.108 | EAG Medikuntza Orokorra | 59.304 |
| 18.764 | EAG Erizaintza | 17.440 |

# AZPIEGITURAK HOBETZEA

## ERABERRITZE ETA HOBEKUNTZA LANEN PROIEKTUA ADIERAZGARRIENAK

### GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

- **Nefrologia**ko itxarongela eraberritzea, kontsulta, biltegia eta itxarongela egiteko (eraikina: EH – S01F)
- **Igerilekua** eraberritzea, behin-behineko gimnasioa egiteko (eraikina: EH – S02 A)
- 301., 302., 312., 313. eta 314. logeletan **garabiak** jartzea (eraikina; EH - P03 A)
- **Angiografoa** berritzea (eraikina: EH – P00 B)
- **Atondo nagusia**, PEAZ eta Onarpen Zerbitzua eraberritzea C beheko solairuan (eraikina: C - P00 C)
- **Transplanteak koordinatzeko lokalak** egokitzea (eraikina C - P07)
- **Fatxada nagusia** eraberritzea, kaperarako sarbide zaharra (eraikina: D - P00)
- 3 E solairua - **Psikiatria Unitatea** eraberritzea (eraikina: EH P03)



# AZPIEGITURAK HOBETZEA

## ERABERRITZE ETA HOBEKUNTZA LANEN PROIEKTUA ADIERAZGARRIENAK

### LEHEN MAILAKO ARRETA

- **Erabakimen Handiko** Zentroa eraikin berria, Zallan
- Bi kontsulta berri lehen eta bigarren solairuetako **itxarongeletan** (Mamarigako Osasun Zentroa)
- **Kontsulta berriak** 2. solairuan, gainbegiralearentzat eta espezialista-kontsultarako (Kabiezesko Anbulatorioa)
- Kontsultarako **sarbide** berria, segurtasuna eta irisgarritasuna (Zaramilloko Kontsultategia)
- Pintura: kanpoaldea eta beheko solairua, 2. solairuko **oftalmologia**ko kontsulta berriak (Ortuellako Anbulatorioa)
- Ortuella, Balmaseda eta Sodupeko osasun-zentroetako **igogailuak** eraberritzea
- **Klimatizazioa hobetzea:** Buenavistako Osasun Zentroan (OTA eremua), Ortuellako Anbulatorioan (Kontsultak, 1. solairuan), Kabiezesko Anbulatorioan (BAE eremua) eta Sodupeko Osasun Zentroan (1. solairua).
- **Galdara-gela** eraberritzea (Kabiezesko Anbulatorioa)
- **Fatxada**n mantentze-lanak egitea (Castañosko Osasun Zentroa)
- **Kanpoko fatxada** konpontzea, hezetasunagatik (Buenavistako Osasun Zentroa)
- **Kanpoko horma** konpontzea, erorketengatik (Errepelegako Anbulatorioa)



# SEGURTASUNA ETA PRAKTIKA KLINIKORAKO EGOKITASUNA

## SEGURTASUN KLINIKOA

| SNASP | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|
| Jakinarazpenen kopurua | 663 | 1.057 | 1.385 | 2.075 |
| Saihesteko modukoen % | %97 | %92 | %95 | %97 |
| Ez dira pazientearengana iristen % | %32 | %35 | %33 | %36 |
| **HONEKIN LOTUTA:** | | | | |
| Medikazioa | %15,4 | %37 | %33,4 | %12,7 |
| Ekipoak-dispositiboak | %16,1 | %8 | %9,0 | %9,9 |
| Langileen arteko komunikazioa | %14,5 | %42 | %19,0 | %23,8 |

| BALORAZIOA EBALUAZIOAN | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|
| Egiaztapen-zerrenda erabiltzen den interbentzioen kopurua | %38,1 | %89 | %60,6 | %67,0 |
| II, III edo IV mailako ultzerak dituzten pazienteen intzidentzia | | %1 | 1,16 | 1,25 |
| Erorikoak izan dituzten pazienteen intzidentzia | 1,54 | %1 | 1,33 | 1,65 |
| Identifikazio-eskumuturrekoa duten pazienteen prebalentzia | %95,1 | %97 | %98,2 | %100 |
| Infekzio-tasa aldakako protesietan | %1,0 | %2 | %1,9 | %1,7 |
| Infekzio-tasa belauneko protesietan | %0,89 | %2 | %1,54 | %0 |
| Zauri kirurgiko sakonaren infekzio-tasa kolon-ondesteko kirurgian | – | %12 | %12,2 | %12,1 |

# BPSO TXOSTENA 2024

## (Best Practice Spotlight Organizations)

**BPSO programa** gure erakundeko funtsezko oinarria da oraindik ere. **Hauexek dira nabarmentzekoak:**

- **Erakunde-babesa.** Horri esker, programa erabat txertatu daiteke ezartzen diren askotariko ekimen estrategiko, diseinu eta proiektu asistentzialetan.
- **Lankidetzan oinarritutako parte-hartze zabala.** Aldi honi dagokionez aipatzekoa da nabarmenki areagotu dela profesionalen parte-hartzea; izan ere, 2023an 360 profesional zeuden erregistratuta, baina ekitaldi honetan 425 egon dira. Profesionalen kopuru handi hori inplikatzeak eragin du erakunde osoan proiektua garatzeko beharrezkoak diren bultzada eta energia izatea.
